



# Kaixo

2012 OTSAILA / 107. ALEA

## urretxu!

2. orrian

### **KONTUAK GARBI AURKEZPENA, POLITIKA ULERTZEKO ERA BERRI BATEN LEHEN PAUSUAK**

Udal Gobernuak bere planak aurkeztu zizkien herritarrei

4. orrian

### **UNAI BADIOLARI ELKARRIZKETA**

«Elurteetan aurreikuspenekin asmatzea da zailena»

6. orrian

### **GIZARTE LARRIALDIE- TAKO LAGUNTZAK, MITOAK HAUTSIZ**

laz 120 eskaera bideratu zituen Urretxuko Udalak

8. orrian

## **MARTXOAN BERTSOA, 10 URTE ETA 11 KOMERI**

Ekimenaren historioari

errepasoa hamar momentutan

**Kaixo urretxu!**   
Urretxuko Udal Aldizkaria

**Kaixo** *urretxu* /

# Las cuentas claras, el primer paso de una nueva forma de entender la política

**El equipo de gobierno de Urretxu explicó su plan de legislatura en un acto que quiere abrir el camino para un nuevo modelo de gestión municipal**

Revertir el modo tradicional de entender la política, devolviendo el protagonismo a la ciudadanía, es uno de los objetivos que se ha propuesto el Gobierno municipal de Urretxu y, en ese trayecto, la presentación pública de los presupuestos y del proyecto de legislatura que tuvo lugar el pasado 16 de febrero quiere ser la primera piedra del camino que queda por construir.

Con el claro objetivo de ser lo más transparente posible y en aras de abrir vías que permitan que los próximos presupuestos sean lo más participativos y populares posibles, el equipo de Gobierno explicó a los 25 ciudadanos que muestra-

ron su interés en acudir al acto, las líneas maestras de sus actuaciones.

En esta innovadora experiencia, jamás se había hecho nada similar en la localidad, los miembros del Gobierno municipal explicaron que lo primero que hicieron al llegar al Ayuntamiento fue realizar, junto a los técnicos municipales, un diagnóstico general de la situación del municipio. Con los datos de esta radiografía, se trabajó con el resto de fuerzas políticas un plan de legislatura para fijar los objetivos del Urretxu que se quiere en 2015.

**Kaixo** *urretxu* /

2012 OTSAILA / 107. ALEA

**Ale honetako laguntzaileak:** Gorka Azkarate, Gorka Ojanguren, Urretxu-Zumarragako Bertso Eskola, Iñaki Arriaran, Unai Badiola, Jon Altolagirre, Hiria Kolektiboa.

**Argazkiak:** Luis Angel Téllez, Gotzon Aranburu, Gorka Azkarate eta Kaixoko laguntzaileak.

**Lege Gordailua:** SS/678/93

**Konposaketa eta diseinua:** Ur Artola Probanza

**Koordinatzailea:** Jon Ormazabal

**Inprimaketa:** ANTZA **Tirada:** 3.300 Ale

KAIXOk ez du derrigorrez bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas.

Ez bazara Urretxun bizi eta KAIXO aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, eman zure helbidea **943 03 80 88** telefonoan edota [kultura.ur@urretxu.net](mailto:kultura.ur@urretxu.net) helbide elektronikoan.

Si no vives en Urretxu y quieres recibir la revista KAIXO en tu buzón, déjanos tu dirección en el teléfono **943 03 80 88** o bien en [kultura.ur@urretxu.net](mailto:kultura.ur@urretxu.net).



Siempre sin dejar de garantizar que el día a día del Ayuntamiento siguiera su curso habitual, una vez consensuados esos objetivos, se volvió a contar con los técnicos municipales para elaborar un plan de gestión del que se dieron a a conocer sus principios más importantes.

Sin intención de ahogar a nadie en un mar de números, el equipo de Gobierno expuso a los presentes el diagnóstico de una situación dura y áspera, pero sobre todo, trató de buscar la complicidad de todos los urretxuarras para, tirando todos del carro, convertir la delicada coyuntura económica actual en un acicate para involucrarse en conseguir un pueblo más agradable y participativo.

Kontuak garbi ekimenarekin, Urretxuko Udal Gobernuak mugarri bat ezarri nahi izan du, gaur egun indarrean dagoen politika eredia iraultzeko bidean. Gardentasunaren izenean, gobernu taldeak, bere legegintzaldi plana eta 2012. urterako aurrekontuen oinarritzko pintzeladak jende aurrean agertu zituen, otsailaren 16an egindako batzar irekian.

Herritarrei udalaren gestioan galdu duten protagonismoa itzultzea eta krisi garai hauetan, auzolanaren balioa eta indarra berreskuratzea dira egitasmo honen bi zutabe nagusiak.

Udal teknikari eta gainontzeko indar politikoeekin egindako lanketaren ostean, sei dira legegintzaldi honetarako ezarri diren helburu estrategikoak:

- 1** Pertsona guztien eta guztientzako herria. Bizikidetza.
- 2** Euskalduntasun integratzailea bul-tzatu, kohesioa bermatuz
- 3** Arlo guztietan iraunkortasun irizpi-deak jorratu
- 4** Pertsona prestatu eta arduratsuak sustatu, partaidetza kudeatuz
- 5** Udalaren kudeaketa eraginkorra eta gardena finkatu
- 6** Garapen ekonomiko orekatua eta eskualdean txertatuakoa



# "Ez daude bi elurte berdin eta aurreikuspenetan asmatzea ez da batere erraza"

Abestiak dioen bezala, negua joan dela ematen duen honetan, Unai Badiola alkateordearekin izan gara, elurteek sortzen dituzten eragozpen eta hauek saihesteko udalak dituen baliabide eta hauen kudeaketaz aritzeko

***Badirudi elurteak amaitu direla, zer nolako balorazioa egiten duzu Udalak emandako erantzunaren inguruan?***

// Argi dago hobetzeko asko dagoela, baina balantzea positiboa da. Dautzka-gun baliabideak ikusita, ez da aparteko arazorik egon, edo gutxienez ez dugu kexa handiegirik jaso. Gure lehentasunak eskolak, industrialdeak eta zaharren egoitzak ziren eta erantzun egokia eman zitzaien, goizeko 6.30etarako lanean hasi ginen. Irizpide orokor bezala, jendeari gutxienez aukera garbi bat eskaintzea izan zen. Denera iristea ezinezkoa denez, bi bide badaude, gutxienez nagusiena garbitzea izan zen erronka, bi espaloi badaude, gutxienez bat garbi egotea...



Unai Badiola

Alkateordea

Jendeak kontuan izan behar du elurteak sekula ez direla berdinak, elur kopurua, egunak, izotza... beti dira desberdinak eta zailena aurreikuspenetan asmatzea da, ez da beti lortzen. Adibide bat jartzearren, elurra kentzeko makina bakoitza alokatzeak 160 euro balio du, erabili edo ez erabili. Aurreikuspenen arabera hartu beharreko erabakiak dira, arazoa eman aurretik hartu beharrekoak, beti ere, alperrikako dirurik gastatu gabe.

***Zein baliabide ditu udalak halako kasuetarako?***

// Oso murrizak, giza baliabideei dago-kionean, brigadako langileak, lorezaintza enpresakoak eta kale garbitzaileak. Hori elurtea astegunetan ematen bada. Asteburuetan brigada-



koak bakarrik, beharraren arabera deitzen ditugunak. Materialei dagokionean, todoterrenoan jartzen den gatzontzi bat eta kaleak garbitzen dituen enpresak ematen digun laguntza, bi herrirentzat giza eta material partekatua ematen dizkigu.

### **Urretxu eta Zumarragaren arteko elkarlanak ondo funtzionatzen al du?**

// Aurten ondo moldatu gara. Zumarragarekin hiru bilera egin genituen, bat suhiltzaile zerbitzuarekin, beste bat errepideetako arduradunekin, -bi haue-tan Legazpi ere egon zen eskualde mailako erantzun bat emateko- eta beste bat kale garbiketako enpresarekin.

Bilera horietatik irten zen ondorio nagusia izan zen suhiltzaileek larrialdiak bermatu behar dituztela eta euren ekarpena horregatik mugatua geratzen dela, nahiz eta baliabideak izan. Errepideetakoek euren errepideak garbi izan behar dituzte, Urretxuren kasuan, Etxaburutik hasi eta, Santa Barbaratik, Aparizioko biribilguneraino. Gainontzekoa kale garbiketa enpresa eta udalaren -brigada eta udaltzainak- esku, geratzen da. Eskertzekoa da esaterako, hainbat langilek beraien ordutegitik kanpo egin duten lana.

### **Eta baserriak zer?**

// Baserri askok euren baliabideak dituzte, beraiek garbitzen dituzte baserri bideak eta beraien jarrera eskertzekoa da oso. Beharrak larriak direnen, bi baserriarren zerbitzuak kontratatzen dira, baserri bideak garbitu eta behar izanez gero, baita herria garbitzeko ere.

### **Aurten kaleetan zeresana eman duen bando bat ere izan da, nondik? Zergatik?**

// Ideia beste herri batetik etorri zen Ordiziatik, urte askotan egin izan dute horrela. Argi dago, ditugun baliabide urriekin eta elurteen izaeraren arabera, ezinezkoa dela denera iristea eta jendearen laguntza eskatu dugu. Laguntza hau erabat borondatezkoa izan da, gainera, datorkigunarekin, auzo lanaren ideia berpiztea garrantzitsua iruditu zaigu, eta ez bakarrik elurtearen kasuarekin. Jendeak uste dezakeenaren aurka, ordaintzen ditugun zergek ez dute denetarako ematen!

### **Jende asko etorri al da pala bila?**

// Herritarren erantzunarekin oso gustura gaude, 27 pala eta 43 zaku gatz banatu genituen, nahiz eta pala hurrengo urteetarako gordetzeko itzuli egin behar zutela azaldu zitzairenean, egon den atzera bota den bakarren bat ere.

### **Ikasteko gauzen artean gatzarena izan daiteke bat?**

// Bai, gehiegizko erabilpen bat ematen da eta horren ondorioak orain ari gara pairatzen. Esaterako Nekolaldetik Basagastira dauden eskileratako lurra altxatzen ari da, espaloietan altxatzen diren baldosak...



**Kalxo** *arazoak*

# Gizarte Larrialdietarako Laguntzak, zenbait tabu eta mito hautsiz

**Gero eta gehiago dira gizarte bazterketarik eman ez dadin edo halako arazoak konpontzeko beharrezkoak diren gastuei aurre egiteko laguntzak behar dituztenak**

Bizi dugun egoera ankerrak, are eta beharrezkoagoak egin ditu Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL). Hauen helburua ezusteko gertaera batek edo aldizkako prestazio ekonomikoaren ondoriozko baliabide ekonomiko urriek sortutako larrialdiko egoera ekonomikoak estaltzean datza. Egoera horiek une jakin batean gerta daitezke edo une desberdinetan, pertsonaren bizitzako denboraldi luzeetan. GLLak premiazko gabezia eta gabetasunak biltzen dituzten egoerak saihesteko baliabide aringarri modura erabiltzen dira.

## Zer gastu ordaintzeko ematen dira?

2012rako Gizarte Larrialdietarako Laguntzen gehieneko zenbatekoak, bizikidetzaren unitate (hemendik aurrera, BU) bakoitzeko eta gastu espezifiko bakoitzerako, honako hauek dira:

*\* Alokairu-gastuengatik: hileroko gehieneko kopurua 250 € izango da, eta ezin izango du etxebizitzaren alokairuaren % 70 gainditu*

*\* Gizarte-larrialdiko egoera baino lehenagoko etxebizitza edo bizitokia eros-*

*teko kredituen interesen eta amortizazioaren gastuengatik, 250 € gehienez hileroko, eta ezin izango da kredituaren hileroko interesen edo amortizazioaren kopuruaren % 70 gainditu*

*\* Energia, ura eta bestelako mantentze-gastuengatik, gehienez 92,50 euro hileroko.*

*\* «Linea zuriko» etxe-tresna elektrikoaren eta altzarien gastuak direla-eta, gehienez 1.850 euro urtero.*

*\* Etxebizitza konpontzeko, egokitzeko eta/edo oinarritzko instalazioak egiteko gastuak direla-eta, gehienez 1.850 euro urtero.*

*\* BU-ko kide batek edo gehiagok dituzten oinarritzko premiei buruzko gastuengatik, esate baterako: jantziak, hezkuntza eta prestakuntzakoak eta osasun-arretakoak, betiere sistema publikoek gastu horiek estaltzen ez dituztenean, urtean 1.850 euro gehienez.*

*\* Zorreatikoko gastuak*

laz, guztira Gizarte Larrialdietarako Laguntzen 120 eskaera jaso ziren Urretxuko Gizarte Zerbitzuetan. Horietatik, 72 mantenimentu gastuetarako, 18 alokairu gastuetarako, 15 hipoteka gastuetarako, 14 oinarrizko beharrak ordaintzeko eta etxeko konponketetarako bakarra. Eskaera horietatik, Laguntza jasotzeko baldintzak 75ek betetzen zituzten.

KONTZEPTUA / CONCEPTO	GUZTIRA / TOTAL
Alokairua / Alquiler	18
Hipoteka / Hipoteca	15
Mantenimentua / Mantenimiento	72
Elektrotresnak / Electrodomesticos	0
Konponketak / Reparaciones	1
Oinarrizko beharrak / Necesidades básicas	14
Zorrak / Deudas	0
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>120</b>

Guztira, 56.321,09 euro eman ziren Gizarte Larrialdietarako Diru Laguntza kontzeptuan. Emandako laguntzen gehienak (%39) mantenimentu gastuak ordaintzeko izan ziren.

**GASTUA KONTZEPTUKA / GASTO SEGÚN CONCEPTO**



Onuradunei dagokionez, esan beharra dago ez dagoela inolako profil jakinik. Gizartean oso zabaldua dagoen iritzia aurka, onuradunen artean denetariko herritarrak daude, eta etorkinak ez dira laguntza hau jasotzen duten gehiengoa. Jatorriari erreparatuta, gehiengoa espai-

niar Estatuan jaiotako pertsonak dira (%88) eta Estatutik kanpoko atzerritarrak %12 dira.

**JATORRIA EHUNEKOTAN / PROCEDENCIA**



Aipagarria eta esanguratsua da, laguntzaren titularrak diren emakumezko eta gizonezkoen egoera zibilari erreparatuta dagoen aldea. Emakumezko gehienak banandu, dibortziatu edo alargunak diren bitartean, gizonezkoen gehiengoa ezkondua da.

**G.L.L. TITULARRAK SEXUAREN ARABERA / AYUDAS SOCIALES SEGÚN SEXO**



**EMAKUMEZKOEN EGOERA ZIBILA / ESTADO CIVIL (M)**



**GIZONEZKOEN EGOERA ZIBILA / ESTADO CIVIL (H)**





**Gorka Azkarate eta Gorka Ojanguren**  
Bertsolariak

## Martxoan Bertsoa, 10 urte eta 11 komeri

**Konturatzerako, bertsolaritza sustatu asmoz jaio zen ekimen honek 10 urte bete dizkigu eta, txirrindularitzan bezala, udaberriko klasikoetako bat bihurtu zaigu**

Orain hamar urte Urretxu-Zumarragan 60tik gora lagun txapelketa batean kantuan jarriko genituela, kalean antzerki bat taularatuko genuela, pelikula bat grabatuko genuela, musikal bat egingo genuela... inork esan baligu, kopia ederak kantatu izango genizkion.

Gaur egun, ordea, horiek guztiak martxoarekin batera bertsolaritza sustatu eta gure kaleak direnak baino grisagoak egiten dituen kale giro tristean kolore apur bat jartzen duten Martxoan

Bertsoa ekitaldi sortaren barruan antolatutako ale batzuk baino ez dira.

Aurrekontu eta subkontratazio garestirik gabe, gure herriotan ditugun artisten borondate eta ilusioari esker, gauza asko eta onak egin ditzakegunaren adibide bikaina da aurten hamargarren urteurrena beteko duen ziklo hau. 10 urte, zenbaki borobila eta aurrera indarrez begiratzeko, ibilbide emankor honetan egindakoak gogora ekartzeko aitzakia ezin hobea.

**2003**  
**MAHOMA ETA MENDIA**



Argi geneukan, jendea bertso saioetara joaten ez bazen, geuk joan behar genuela jendearengana eta hala sortu zitzaigun txapelketa antolatu eta saioak tabernetara eramateko ideia. Esperimentu moduko bat zen guretzat eta hasieratik arrakasta handia izan zuen, hiru partaidez osatutako bederatzi talde osatzea handia izan zen. Bertso eskolan dezente biltzen zen talde majoa genuen, baina bat batean oso gutxi aritutakoak eta hasierako beldur horiek uxatzeko erabaki genuen taldeka aritzearena.

## 2004 QUE ARTE MI ARMA




Txapelketa beti ardatz nagusietako bat izan den arren, betidanik argi izan dugu Martxoan Bertsoa hori baino gehiago izan dela. Urte honetan, esaterako, bertso-trama bat prestatu eta kaleak aztoratu zituen ijito talde berezi batek. Gure lehen antzerki mugikorra izan zen, Zumarragako plazan hasi eta Urretxukoan amaitu zena, batetik bestera, hamaika lagun mugiarazi zituena. Gogoan daukagu, gainera, goizean, antzerkirako prestatuta genuen «fragnetarekin» kaleetatik propaganda egiten aritu ginela, flamenkoa topera jarrita, hauteskunde kanpaina bailitzan.

## 2005 HARROBIA LANTZEN



Bertsolaria jaio, baina batez ere landu egiten denaren ustean, gaztetxoenei bidea zabaltzea beti izan da Martxoan Bertsoa ekimenaren ardatzetako bat. Gure Zubieta partikularren Anoeta izan da hein handi batean eta gaur egun izarrak diren askok bertan egin zuten jendaurreko debuta. Urte honetan, esaterako, umeen antzerki bat antolatu genuen, ziurrenik inoiz gehien entsaiatu dugun ekitaldia izango zen. Orduko taldearentzat erronka handia izan zen eta lan asko egin behar izan genuen, baina merezi izan zuen.

## 2006 PAPERAN ERE BAI



Bat batekotasunean dago, ezbairik gabe, bertsolaritzaren esentzietako bat, baina bertsopaperek ere badute euren grazia. Bertsolaritzan lehen pausuak emateko ezinbesteko ariketak dira bertsopaperak eta ehundaka izan dira urte hauetan guztietan Martxoan Bertsoak lanean jarri dituen gaztetxoak. Eskolarteko txapelketan sarituak izan direnek gainera, herriko agertoki handienetan kantatu ahal izan dituzte euren alerik preziatuenak.

## 2007 BEHARREZKO BULTZADA



Denok dakigu, eta sarri pairatu behar izan ditugu, bertsolari potentzial ugari daudela gure familia eta koadriletan. Martxoan Bertsoa lotsak alde batera utzi eta jende aurrean abes-tera irteteko azken bultzada izan da, publiko aurrean sekula kantatu ez izanaren damua betiko gordeko zutela uste zuten askorentzat. Bostgarren ekitaldi honek jende berri asko erakarri zuen eta nabarmentzekoa da, baita ere, urte hartako agurretan erakutsitako maila eta originaltasuna.

## 2008 AGENDA LEHERTZEAR



Txapelketaz haratago, Martxoan Bertsoak publiko guztientzako hamaika ekitaldi hurbildu dizkie herriko bertsozaleei. 2008. urtea benetan emankorra izan zen alor honetan eta agendan leku bat egitea oso zaila izan zen askorentzat. Xabier Amurizaren klase irekiak, Uxue Alberdik gidatutako sorkuntza tailerrak, Itziar Gomezen komunikazio ikastaroak, txontxongiloak, Gu eta gutarraken kontzertuak eta emakumearen egunean jokaturako bertso pilotak, gustu guztiak ondo asetuta utzi zituzten.

## 2009 3,2,1... GRABATZEN



Normalean ekitaldi xumeak ian dira Martxoan Bertsoa ekitaldiaren bueltan antolatutakoak, baina superproduktiorik ere izan da, «James John Ez Doktorearen aurka» filma tarteko. Baliabide tekniko eta artistiko onenekin grabatutako lan honetan, Slump doktorearen asmakizun xelebreen laguntzarekin, filmeko protagonistak Ez Doktore zitala eta bere laguntzaile arloteak garaitzea lortuko du, Urretxu-Zumarragako kaleetara giroa itzuli araziz.



## 2010 INTERNAZIONALIZAZIOA



Arrakastak, herri mailako bokazioa zuen proiektuak mugak zabaltzea ekarri zuen. Hasierako errezeloak gaingaituta, txapelketari haize eta merkatu berriak ekarri zizkion erabakiak. Legazpiarrak izan ziren bat egiten lehenak, Ezkio-Itsaso eta Gabiriarrak ere ekarri izan dute euren alea, baita txapelaren bat eraman ere. Zabalkunde honek Igartubeiti baserri museo bezalako plaza ikusgarriak ere zabaldu dizkio Martxoan Bertsoari.

## 2011 ROCK AND ROLL STAR



Bertsozale ortodoxoenen artean marmarren bat sortu duten arren, argi dago, bertso musikatuaren «performanceak» geroz eta zale gehiago biltzen dituela ekitaldi bakoitzean. Van Morrisonetik, Sabinara, Loquilloren rocketik, Bogavantearen patxangara, era eta estilo guztietako doinuen erritmora, musikari bikainez lagunduta, hamaika bertso oholtzaratu dituzte bertso eskolako kideek, publiko eta fanen gozamenerako.

## 2012 BOROBILA



10 urte ez dira egunero betetzen eta halako efemeride batek merezi bezalako ospakizuna izango du aurtengoan. Betiko ekitaldi arrakatsuei, Aizpurutxon egin zen bertso-kirol desafio umoretsua, hitzaldi-tailerra, musikala eta lehen bertso sorkuntza lehiaketa ere batu behar zaizkie. Gainera, orain arte antolatutako taldekako bertsolari txapelketa guztietan parte hartu duten bertsolariek, merezitako omenaldia jasoko dute.



# Eguneroko bizitzaren mapak

**Martxoaren 2tik 16ra, hirigintzak urretxuarren egunerokotasunean duen eragina aztertzeko erakusketa egongo da zabalik udaletxeko harreran**

Gustu estetikoak alde batera utzita, argi dago gure plaza, parke, kale, kamino eta abarren izaera eta erabilerek asko baldintzatzen dituztela gure harreran eta ohiturak. Leku publiko hauek dira gure elkarbizitzarako gunerik garrantzitsuenak eta herritarrak gar, hirigintza alorrean egiten diren aldaketak gehien gozatu edota pairatu ditzakegunak.

Gure herrian nola bizi garen aztertu eta Urretxuren talde kontzientzi bat zabaldu asmoz, Urretxuko Udaletik, Hiria Kolektiboaren eta Berdintasun / Sustapen sozial batzordearekin elkarlanean, martxoaren 2tik 16ra udaletxeko harreran egingo den erakusketara gonbidatzen zaitugu. Arratsaldeko bostetatik zortziretara zabalik egongo den gune honetan, ekintza desberdinen bidez, gure herriko egunerokotasunaren inguruan erreflexionatu, ikusi, aztertu, gozatu eta eztabaidatu ahal izango dugu, bizitzeko Urretxu goxo eta erosoago bat sortzearen helburuarekin.

